

COOK&GO



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak fidelizatzeko, lehenik eta behin esperientzia positiboa eta koherentea eskainiko dugu: zerbitzu arina, tratu pertsonalizatua eta kalitatezko produktuak, bezeroak gustura senti daitezen eta itzultzeko gogoia izan dezaten. Horrez gain, fidelizazio programa sinple bat ezarriko dugu, non erosketa kopuru jakin baten ondoren deskontuak edo eskaintza bereziak lortuko dituzten. Bezero ohikoenei eskaintza eksklusiboak bidaliko dizkiegu posta elektronikoaren edo sare sozialen bidez, eta urteko data berezietan (urtebetetzeak, jaiak) promozio bereziak eskainiko ditugu. Era berean, bezeroen iritziak eta proposamenak aktiboki jasoko ditugu inkesta laburren edo online balorazioen bidez, haien beharretara egokitze eta etengabeko hobekuntza bermatzeko. Helburua da bezeroak ez bakarrik etortzea, baizik eta negozioaren parte sentitzea.